

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 835/2023 Foru Agindua, abenduaren 29koa. Aldatzea abenduaren 27ko 761/2011 eta abenduaren 20ko 773/2021 Foru Aginduak, hurrenez hurren onesten dituztenak 193 eta 296 ereduak**

Abenduaren 27ko 761/2011 eta abenduaren 20ko 773/2021 Foru Aginduak aldatzen dira. Abenduaren 27ko 761/2011 Foru Aginduaren bidez, 193 eredu onetsi zen, hau da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kapital higigarriaren zenbait errendimenduren eta sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkorrei dagokien ez-egoiliarren gaineko zergaren zenbait errentaren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren ereduak. Abenduaren 20ko 773/2021 Foru Aginduaren bidez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 296 eredu onetsi zen. Oraingo aldaketa hau gainerako zerga administrazioekin informazio truke egokia errazteko eta ahalbidetzeko beharrezkoak diren arau erreferentziak eguneratzeko eta egokitzapen teknikoak egiteko egiten da, eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko.

Horrela, foru agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen 193 eta 296 ereduaren informazio aitortpenari aplikatzekoa zaion araudia.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dogozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea abenduaren 27ko 761/2011 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 193 ereduak, bai eta ereduaren ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriaren diseinu fisikoak eta logikoak ere. Eredu horren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargapeko kapital higikorren etekin batzuen eta Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko establezimendu iraunkorretako errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkezten da.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 27ko 761/2011 Foru Aginduari:

Bat. "HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA" eremua gehitu da, 1 motako erregistroko (aitortzailearen erregistroa) 250tik 299ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko erregistro diseinuetan, eta ondorioz, haren edukia hau da eta, "ZURIUNEAK" eremuari dagozkion posizioak eguneratzen dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
236-249	—	ZURIUNEAK
250-299	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA Harremanetarako pertsonaren posta elektronikoaren helbidea adierazi behar da.
300-487	—	ZURIUNEAK

Bi. "IZAERA" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (hartzailearen erregistroa) 93tik 94ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
93-94	Zenbakizkoa	<p>IZAERA "HARTUKIZUN GAKOA" eremuan emandako gako alfabetikoaren arabera dagokion zenbatekoa adieraziko da. Hona zerrenda:</p> <p>A hartukizun gakoari lotutako izaera 01. Hobariak biltzarretara joateagatik. 02. Edozein eratako entitateen dibidendu eta irabazietan parte hartzea, "07" edo "08" izaerak egoki ez direnetan. 03. Aktiboaren klase guztietatik datozen etekinak, salbu eta estatutuetan edo sozietatearen organoaren erabaki batez askaturik dauden akzioen emateenak; horrezaz gainera, akzio horiek ahalmena eman behar dute parte hartzeko norberaren lanaren ordainsaria ez beste kari baten zioz, sozietate edo elkarte baten mozkin, salmenta, eragiketa, sarrera edo antzeko kontzeptuetan. 04. Erakundearen funts propioetan partaidetza ahalbidetzen duten baloreen edo partaidetzen gaineko erabilera nahiz gozamen eskubideak edo ahalmenak (zeinahi ere den izendapena edo izaera) eratzearen edo lagatzearen ondoriozko etekinak edo errentak. 05. Aurreko digituetakoak ez beste onura guztiak, erakundeek bazkide, akziodun, elkartu edo partaide izateagatik emanak. 06. Salbuetsitako etekinak. 07. Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako dibidendu eta irabaziak. 08. Atxikipen edo konturako sarreraren peko dibidenduak. 09. Kooperatibek bazkideei ordaindu dizkien ekarpenaren korrituak.</p> <p>B eta D hartukizun gakoari lotutako izaera 01. Obligazio, bonu, gordailu ziurtagiri eta beste titulu pribatu batzuen korrituak. 02. Obligazio, bonu, agiri, zor publiko eta beste titulu publiko batzuen korrituak. 03. Bankuetakoak ez beste mailegu batzuen korrituak. 04. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauko hamalagarren xedapen iragankorren aipatzen diren finantza eragiketetan araubide iragankorra aplikatzen zaien etekinak edo errentak. 05. Finantza erakunde batek bere titulartasuneko kreditu baten transmisio, lagapen edo transferentzia osoaren edo partzialaren ondorioz ordaindutako etekinak edo errentak. 06. Aurreko digituetan sartzen ez diren kapital higikorren beste errenta edo etekin batzuk. 07. Salbuetsitako etekinak.</p> <p>C hartukizun gakoari lotutako izaera 01. Jabetza intelektualetik eratorritako etekinak edo errentak, hartzailea autorea ez bada, 15. azpigakoan aurreikusitako bestelakoak. 02. Hartzaileak egindako jarduera ekonomikoekin loturik ez dagoen jabetza industrialetik eratorritako etekinak edo errentak. 03. Laguntza teknikoaren prestaziotik eratorritako etekinak edo errentak, prestazio hori jarduera ekonomiko baten esparruan gauzatu ezean. 04. Jarduera ekonomikoak taxutzen ez dituzten ondasun higikor, negozio edo meategien errentamendu edo azpierrementutik eratorritako etekinak edo errentak. 05. Kapitalen ezarpenak sortutako biziarteko edo aldi baterako errentak, baldin eta ez badira jaso jarauntsita, lagata edo beste oinordetza tituluren baten bidez eta ez badira kapitalizazio eragiketen edo bizi zein elbarritasun aseguruako kontratuen ondoriozkoak. 06. Irudia ustiatzeko eskubidearen edo hura erabiltzeko baimenaren edo eskuespenaren lagapenetik eratorritako etekinak, lagapen hori jarduera ekonomiko baten esparruan izan ezean, betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira. 07. Jarduera ekonomikoa taxutzen ez duten hiriko ondasun higiezinaren azpierrementuetan lortutako etekinak, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira. 08. Irudia ustiatzeko eskubidea lagata edo hura erabiltzeko baimena emanda lortutako errentak, nahiz eta ustiapen ekonomikoetan sortutako sarrerak izan, baldin eta Sozietateen gaineko Zergarekiko subjektu pasibo edo establezimendu iraunkorren bidez errentak eskuratzen dituzten Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergarekiko zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira. 09. Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartuz eskuraturiko errentak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, promozio edo salmentari lotuta egon zein ez, baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren kargapeko subjektu pasibo edo establezimendu iraunkorren bidez errentak eskuratzen dituzten Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira. 10. Beste sozietate batzuetan administrari edo aholkulari eratxikipenaren ondorioz lorturiko kontraprestazioak, baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo edota establezimendu iraunkorren bidez errentak eskuratzen dituzten Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren hartzaileak (erregistroak) badira. Hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada, errenta hauek 190 ereduan aitortu behar dira.</p>

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
93-94	Zenbakizkoa	<p>11. Etekin salbuetsiak.</p> <p>12. Zerga oinarri orokorrean sartu behar diren baina gako honen aurreko digituetan sartu ezin diren kapital higikorren beste errenta edo etekin batzuk.</p> <p>13. Aurrezkiaren oinarri orokorrean sartu behar diren baina gako honen aurreko digituetan sartu ezin diren kapital higikorren beste errenta edo etekin batzuk.</p> <p>14. Kapital higikorren beste etekinak edo gako honetako aurreko digituetan sartu ezin daitezkeen errentak, hartzailea ez bada pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergako zergaduna.</p> <p>15. Egile eskubideen ustiapenaren lagapenetik eratorritako konturako aurrerakinak, baldin eta aurrerakin horiek kapital higigarriaren etekintzat jo eta hainbat urtetan zehar sortzen badira.</p>

Hiru. "ORDAINKETA" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (hartzailearen erregistroa) 95 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
95	Zenbakizkoa	<p>ORDAINKETA</p> <p>"A", "B" edo "D" hartukizun gakoetarako baino ez.</p> <p>Ondoko zerrendan ageri diren zenbakietako bat idatzi behar da aitortzaileak egin duen ordainketa hurrengo kontzeptu hauetako bategatik izan dela adierazteko:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Jaulkitzaile bezala.</li> <li>Espainiar balioen bitartekari bezala.</li> <li>Atzerritar balioen bitartekari bezala.</li> <li>Atzerriko balio ez-atxikitzaileen bitartekari gisa.</li> <li>"B" pertzepzio gakoarekin eta "06" izaerarekin jarritako kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako bestelako etekinen edo errenten bitartekari gisa.</li> </ol>

Lau. "AITORTZAILEAREN IZAERA" eremuaren edukia aldatu da, eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (hartzailearen erregistroa) 208 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
208	Alfabetikoa	<p>AITORTZAILEAREN IZAERA</p> <p>"S" jarriko da aitortzailea kategoria hauetakoren batean ez dagoenean:</p> <p>a) Aitortzailea Espainian helbidea, egoitza edo ordezkaritza duen erakundea da, atxikipena aplikatu beharreko eredu honetako errentak besteren kontura ordaintzen dituen edo kapital higikorren etekinak edo eredu honetako errentak sortzen dituzten balore errenten kobrantzaren gordailuak zaintzen edo kudeatzen dituen.</p> <p>b) Aitortzailea kapital higikorren etekinak edo eredu honetako errentak sortzen dituzten baloreen jaulkitzailea da, beti ere errenta horiek inoren kontura ordaintzekoak direnean edo baloreak titularrek jaulkita daudenean edo errenten kobrantza aurreko a) letran aipatzen diren entitateek kudeatzen dituztenean.</p> <p>c) Aitortzaileak ordaindu egin ditu hamabi hilabetetik gorako likidazio maiztasuna izateagatik 1999koa baino lehenagoko ekitaldietan konturako sarrerak eragin dituzten kapital higikorren etekinak edo errentak, eta urteko laburpenaren ekitaldian behin betiko atxikipenak eta abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Arautegiaren bigarren xedapen iragankorreko 2. idatz zatian aipatutako erregularizazioa egin ditu.</p> <p>d) Aitortzaileak jaso egin ditu administrazio gastuei eta balore negoziagarriei dagozkien zenbatekoak; beraz, eredu honetan jasotako gastuen zerrendako eranskina bete behar du.</p> <p>Aitortzailea aipatu berri diren kategorietakoren batean egonez gero, eremu hau zuriunez beteko da. Eremu honetan "S" jartzen bada, ondoren adieraziko diren eremuak honela beteko dira:</p> <p>BITARTEKARIA (76. kokalekua), zuriunez adieraziko da.</p> <p>KODEAREN GAKOA (79. kokalekua), zerez adieraziko da.</p> <p>JAULKITZAILEAREN KODEA (80-91 kokalekua), zuriunez adieraziko da.</p> <p>ORDAINKETA (95. kokalekua), zerez adieraziko da.</p> <p>KODE MOTA (96 kokalekua), zuriunez adieraziko da.</p> <p>BALORE KONTUAREN KODEA / MAILEGUAREN ERAGIKETA ZK. (97-116 kokalekuak): zuriunez adieraziko dira.</p> <p>PENALIZAZIOAK (182-192 kokalekuak) zerez adieraziko dira</p> <p>GASTUEN ZENBATEKOA (195-207 kokalekuak): zerez adieraziko dira.</p> <p>MAILEGUAREN HASIERA EGUNA (209-216 kokalekuak): zerez adieraziko da.</p> <p>MAILEGUAREN EPEMUGA (217-224 kokalekuak): zerez adieraziko dira.</p> <p>KONPENTSAZIOAK (225-236 kokalekuak): zerez adieraziko dira.</p> <p>BERMEAK (237-248 kokalekuak): zerez adieraziko dira.</p>

Bost. "ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN SARTUTAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK," eremua gehitu da, 2 motako erregistroko (hartzailearen erregistroa) 249tik 313ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko erregistro diseinuetan, haren edukia hau da eta, ondorioz, "ZURIUNEAK" eremuari dagozkion posizioak eguneratzen dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
249-313	Zenbakizkoa	<p>ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN SARTUTAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK</p> <p>Eremu hori bete beharko da, soil-soilik, kapital higigarriaren etekinei edo atxikipenari lotutako errenitei dagozkien atxikipenak eta konturako diru sarrerak eragiketa bolumenaren proportzioan sartu behar direnean, hauetan jasotakoaren arabera: Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 9.artikulua. Bat. Lehenengoa.a) bigarren paragrafoa eta 7.artikulua. Bat.c) bigarren paragrafoa eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 12.1 artikulua bigarren paragrafoa eta 10.1.f) artikulua bigarren paragrafoa. Kasu horietan, erakunde atxikitzaileak, "Atxikipenak eta konturako sarrerak" eremuan (2 motako erregistroko 169-181 posizioak) aipatutako etekinen edo errenten gainean egindako guztizko atxikipenen eta konturako guztizko sarreraren zenbatekoak jartzeaz gain, azpieroemua hauek beteko ditu, administrazio eskudun bakoitzari sartutako konturako sarrerak eta atxikipenak bereizita identifikatzeko:</p> <p>249-261. ESTATUKO OGASUNA Zenbakizko eremua, 13 kokalekukoa. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 9. Bat.lehenengoa.a) artikulua bigarren paragrafoa eta 7. Bat.c) artikulua bigarren paragrafoa eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 12.1 artikulua bigarren paragrafoa eta 10.1.f) artikulua bigarren paragrafoa jasotakoaren arabera eragiketa bolumenaren arabera sartu behar diren kapital higigarriaren etekinei edo atxikipenari lotutako errenitei dagozkien eta Estatu Ogasun Publikoan benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Bestela, eremu hori zeroz beteta jasoko da. Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hori bitan banatzen da: 249-259. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira). 260-261. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p> <p>262-274. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA Zenbakizko eremua, 13 kokalekukoa. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 12.1 artikulua bigarren paragrafoa eta 10.1.f) artikulua bigarren paragrafoa jasotakoaren arabera eragiketa bolumenaren arabera sartu behar diren kapital higigarriaren etekinei edo atxikipenari lotutako errenitei dagozkien eta Nafarroako Foru Komunitatean benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Bestela, eremu hori zeroz beteta jasoko da. Zenbatekoak EUROtan adieraziko dira. Eremu hori bitan banatzen da: 262-272. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira). 273-274. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p> <p>275-287. ARABAKO FORU ALDUNDIA Zenbakizko eremua, 13 kokalekukoa. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 9. Bat.lehenengoa.a) artikulua bigarren paragrafoa eta 7. Bat.c) artikulua bigarren paragrafoa jasotakoaren arabera eragiketa bolumenaren arabera sartu behar diren kapital higigarriaren etekinei edo atxikipenari lotutako errenitei dagozkien eta Arabako Foru Aldundian benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Hala ere, aurreko paragrafoan aipatutako atxikipenak eta konturako sarrerak Arabako Foru Aldundian bakarrik sartu direnean, azpieroemua hau soilik beteko da, eta bertan horiei dagozkien "Atxikipenak eta konturako sarrerak" eremuko zenbatekoa jasoko da (2. motako erregistroko 169-181 posizioak). Eremu hori bitan banatzen da: 275-285. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira). 286-287. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p>

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
249-313	Zenbakizkoa	<p>288-300. GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA Zenbakizko eremua, 13 kokalekukoa. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 9. Bat.lehenengoa.a) artikuluaen bigarren paragrafoan eta 7. Bat.c) artikuluaen bigarren paragrafoan jasotakoaren arabera eragiketa bolumenaren arabera sartu behar diren kapital higigarriaren etekinei edo atxikipenari lotutako errentei dagozkien eta Gipuzkoako Foru Aldundian benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarrerren zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Bestela, eremu hori zeroz beteta jasoko da. Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hori bitan banatzen da: 288-298. Egindako atxikipenen eta konturako sarrerren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira). 299-300. Egindako atxikipenen eta konturako sarrerren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p> <p>301-313. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA Zenbakizko eremua, 13 kokalekukoa. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 9. Bat.lehenengoa.a) artikuluaen bigarren paragrafoan eta 7. Bat.c) artikuluaen bigarren paragrafoan jasotakoaren arabera eragiketa bolumenaren arabera sartu behar diren kapital higigarriaren etekinei edo atxikipenari lotutako errentei dagozkien eta Bizkaiko Foru Aldundian benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarrerren zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Bestela, eremu hori zeroz beteta jasoko da. Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hori bitan banatzen da: 301-311. Egindako atxikipenen eta konturako sarrerren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira). 312-313. Egindako atxikipenen eta konturako sarrerren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p>
314-500	—	ZURIUNEAK

Bigarrena. Aldatzea abenduaren 20ko 773/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 296. eredu: establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrek eta atxikipenen eta konturako diru sarrerren urteko aitortpena.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 20ko 773/2021 Foru Aginduari:

Bat. "ERREGISTROAREN EDO ORDENA ZENBAKIAREN IDENTIFIKATZAILEA" eremua gehitu da, 2 motako erregistroko (hartzailearen erregistroa) 77tik 84ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko erregistro diseinuetan, haren edukia hau da (aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuaren posizioak eguneratzen dira):

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
77-84	Alfanumerikoa	ERREGISTROAREN EDO ORDENA ZENBAKIAREN IDENTIFIKATZAILEA Aitortutako erregistroa modu bakarrean identifikatzen du. Eremu hau aitortzaileak aukeratutako irizpidearen arabera bete daiteke (norberak sortutako kanpo gakoa, kode alfanumerikoa, sekuentzia zenbaki korrelatiboa, etab.).
85-90	—	ZURIUNEAK

Bi. Foru aginduaren II. eranskinean jasotako 296 ereduko erregistro diseinuen 2. motako erregistroaren (jasotzailearen erregistroa) eranskina sortzen da: "ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUNDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN ORDAINDUTAKO ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN XEHAKAPEN ERANSKINA". Eranskin horrek honako eremu hauek ditu:

## 296 EREDUA

2 MOTAKO ERREGISTROA: ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUNDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN SARTUTAKO ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN BANAKAPENARI BURUZKO ERANSKINA.

“Gakoa” eremuan zerrendatutako errenta motak (Hartzailearen erregistroa 2 motako erregistroko 100-101 posizioa) 1 balioa badu (dibidenduak eta entitateen funts propioetako bestelako partaidetza errentak, soilik “Ordainketa” eremuak —Hartzailearen erregistroa 2 motako erregistroko 100-101 posizioa— 1 balioa hartzen badu), edo 2 balioa (interesak eta kapital propioak hirugarrenei lagaztetik eratorritako bestelako errentak, soilik “Ordainketa” eremuak— Hartzailearen erregistroa 2 motako erregistroko 100-101 posizioa— 1 balioa hartzen badu), edo 3tik 11rako balioa (kanonak), 12 balioa (kapitalizazio eragiketen eta bizitza zein baliaezintasun aseguruaren kontratuen ondoriozko higigarrien kapitalaren etekinak), 13 balioa (higigarrien kapitalaren beste etekin batzuk, aurrerago aipatu ez direnak), 22 balioa (administratzaileen eta administrazio kontseiluetako kideen ordainsariak) edo, ordaintzailea pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra bada, errenta bat bi lurraldeetan aldi berean lortuzat jo badaiteke; bat datorrelako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22. artikulua eta 23. artikulua eta Bi apartatua edo Nafarroako Foru Komunitatearekiko Ekonomia Itunaren 30. artikulua eta 2. apartatua bigarren paragrafoan aipatzen diren errentekin. “Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundietan eta Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipenak eta konturako sarrerak banakatzeko eranskina” (“F” orri-mota) beteko da, atxikipenen edo konturako sarrerak Estatuaren eta foru ogasunen artean banatzen badira eragiketen bolumenaren proportzioan.

“ERREGISTROAREN EDO ORDENA ZENBAKIAREN IDENTIFIKATZAILEA” eremuak (2 motako erregistroko 77-84 posizioak) eduki bera izango du hartzailearen erregistroan (2 motako erregistroa) eta hartzaile horri dagokion “Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundietan eta Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipenen eta konturako sarreraren banakapenari buruzko eranskinean” (“F” orri mota).

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: “2”.
2-4	Zenbakizkoa	AITORPEN EREDUA Finkoa: “296”.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA 1 motako erregistroan posizio hauetan jarritakoa idatzi behar da.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ 1 motako erregistroan posizio hauetan jarritakoa idatzi behar da.
18-26	Alfanumerikoa	HARTZAILEAREN IFZ Haren edukia izango da “HARTZAILEAREN IFZ” eremuan (hartzailearen erregistroa 2 motako erregistroko 18-26 posizioak) “ERREGISTROAREN EDO ORDENA ZENBAKIAREN IDENTIFIKATZAILERako” idatzi dena (eranskin honetako 77-84 posizioak, erregistro honi dagozkionak).
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ Haren edukia izango da “LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ” eremuan (hartzailearen erregistroa 2 motako erregistroko 27-35 posizioak) “ERREGISTROAREN EDO ORDENA ZENBAKIAREN IDENTIFIKATZAILERako” idatzi dena (eranskin honetako 77-84 posizioak, erregistro honi dagozkionak).
36	Alfabetikoa	F/J Haren edukia izango da “F/J” eremuan (hartzailearen erregistroa 2 motako erregistroko 36 posizioa) “ERREGISTROAREN EDO ORDENA ZENBAKIAREN IDENTIFIKATZAILERako” idatzi dena (eranskin honetako 77-84 posizioak, erregistro honi dagozkionak).
37-76	Alfanumerikoa	HARTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA, SOZIETATEAREN IZENA EDO IZENDAPENA Haren edukia izango da “HARTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA, SOZIETATEAREN IZENA EDO IZENDAPENA” eremuan (hartzailearen erregistroa 2 motako erregistroko 37-76 posizioak) “ERREGISTROAREN EDO ORDENA ZENBAKIAREN IDENTIFIKATZAILERako” idatzi dena (eranskin honetako 77-84 posizioak, erregistro honi dagozkionak).

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPIZIOA
77-84	Alfanumerikoa	ERREGISTROAREN EDO ORDENA ZENBAKIAREN IDENTIFIKATZAILEA Hartzailearen erregistro bakoitza identifikatzen du. "ERREGISTROAREN EDO ORDENA ZENBAKIAREN IDENTIFIKATZAILEA" eremuko (hartzailearen erregistroa 2 motako erregistroko 77-84 posizioak) edukiaren bera idatzi behar da, eranskin honetan zehaztutako hartzailearen erregistroarekin bat datorrena.
85-149	Zenbakizkoa	ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUNDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN SARTUTAKO ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARRERAK Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22. Lau eta 23. Bi artikuluetan eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 30.2 artikulua bigarren paragrafoan aipatutako errenten kasuan, baldin eta atxikipenen sarrera eta konturako sarrerak Estatuaren eta foru ogasunen artean banatzen badira eragiketa bolumenaren proportzioan, erakunde ordaintzaileak, "Atxikipenak eta konturako sarrerak" eremuan (hartzailearen erregistroa 2 motako erregistroko 121-133 posizioak) aipatutako etekinen gainean egindako guztizko atxikipenen eta konturako guztizko sarreraren zenbatekoak jartzeaz gain, azpiero hauen beteko ditu, administrazio eskudun bakoitzari sartutako konturako sarrerak eta atxikipenak bereizita identifikatzeko:  85-97. ESTATUKO OGASUNA Eremu numerikoa, 13 posizioak. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22. Lau eta 23. Bi artikuluetan eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 30.2 artikulua aipatutako etekinei dagozkien eta Estatu Ogasun Publikoan benetan sartu diren atxikipenen eta konturako diru sarreraren zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Gainerako kasuetan, eremu hori zeroz beteko da. Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hori bitan banatzen da: 85-95. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira). 96-97. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).  98-110. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA Eremu numerikoa, 13 posizioak. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 30.2 artikulua bigarren paragrafoan aipatutako etekinei dagozkien eta Nafarroako Foru Komunitatean benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Gainerako kasuetan, eremu hori zeroz beteko da. Zenbatekoak EUROtan adieraziko dira. Eremu hori bitan banatzen da: 98-108. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira). 109-110. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).  111-123. ARABAKO FORU ALDUNDIA Eremu numerikoa, 13 posizioak. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22. Lau eta 23. Bi artikuluetan aipatutako etekinei dagozkien eta Arabako Foru Aldundian benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hori bitan banatzen da: 111-121. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira). 122-123. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).  124-136. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA Eremu numerikoa, 13 posizioak. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22. Lau eta 23. Bi artikuluetan aipatutako etekinei dagozkien eta Gipuzkoako Foru Aldundian benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Gainerako kasuetan, eremu hori zeroz beteko da. Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hori bitan banatzen da: 124-134. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira). 135-136. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPIZIOA
85-149	Zenbakizkoa	137-149. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Eremu numerikoa, 13 posizioa. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22. Lau eta 23. Bi artikuluetan aipatutako etekinei dagozkien eta Bizkaiko Foru Aldundian benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Gainerako kasuetan, eremu hori zeroz beteko da. Zenbatekoak EUROtan adieraziko dira. Eremu hori bitan banatzen da: 137-147. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira). 148-149. Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).
150-499	—	ZURIUNEAK
500	Alfabetikoa	ORRI MOTA "F" Finkoa

### Azken xedapena

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2023. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 29a

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*  
**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**